

10

NORNAHI, NONAHI, NON-NAHI

Nor, zer, zein, non, nora, nola eta gainerako galdetzaileak *nahi* partikularekin elkartzen direnean sortzen diren esapideak bereiz idazten ziren Hego nahiz Iparraldeko testu zaharretan. Gero, batez ere Hegoaldean, baina baita ere Iparraldean, hedatuz joan ziren idazkera marratxodunak eta, XVIII. mendeaz gero oro har, bi osagaiak batean elkarturik biltzen zituenak. Mende honetan, nahiz hiru idazkerak (*non nahi, non-nahi, nonahi*) ikus daitezkeen, hitz grafiko bakarra erakusten dutenak asko hedatu dira, euskara batuzko testuetan bereziki.

Forma horien artean badira bi, *zein* eta *non* lehen osagarritzat dituztenak, arazo nabari bat dakartenak. Izan ere, mende honetako testuetan *zeinahi* eta *nonahi* motako idazkerak ageri dira, nahiz *n* bakarreko grafia hauek ez diren erabat hedatu. Bestalde, Iparraldeko testuetan *non-nahi* eta are *non nahi* idazkerak dira batez ere erabiltzen direnak. Orobat, *-nn-* grafia bitxi gertatzen da euskal ortografi tradizioan. Alde hauek guztiak kontuan hartuz badirudi batasuna bideratzeko modua *-n-* eta *n-n* idazkeretatik jotzea dela.

Beraz, hau da Euskaltzaindiaren erabakia: galdetzaile batez eta *nahi* partikulaz osaturiko esapideak hitz bakar batean idatz daitezela: *zernahi, nornahi, nornahik, nolanahi, noranahi* e.a. Aldiz, lehen osagaia *n-z, t-z* edo *k-z* bukatzen bada, hitz batean (*nonahi, zenbanahi, nondinahi, nonahitik*), edo marratxo baten bidez bereziak (*non-nahi, zenbat-nahi, nondik-nahi, non-nahitik*) idatz daitezke.

Ikusten denez, erabaki hau idazkera soilari dagokio. Hortaz, *norinahi* edo *nornahiri*, esaterako, *zein* hobetsi, eta kideko auziok, hurrengo batean erabakitzeko uzten ditu Euskaltzaindiak.

(Euskaltzaindiak, Bilbon, 1994ko azaroaren 25ean onartua)